

ANTZERKIA. Hainbat udalerritan herriko azpiegiturak erabiltzea debekatu diete pailazoen saioen antolatzaileei

«Kontratatzeko gaituztenak presionatu eta mehatxatu egiten dituzte»

Kulturaren munduko jende ezaguna izan zen atzo Donostian Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen aldeko agerraldian

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

«Hainbat eragile politikok bultzatuta indar mediatiko botere-tsuen laguntzarekin» iaztik jasaten ari diren «kanpaina bidegabea» salatu zuen atzo Donostiako kaleetan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak, bere aldeko plataformako kideekin batera. Besteak beste, han ziren Maialen Lujanbio bertsolaria, Koldo Izagirre idazlea, Agurtzane Intxaurre (Hika), Jokin Fachado, Ramon Agirre, Arantxa Gurmendi eta Jaione Albeniz (Kukubiltxo) aktoreak, Txan magoa eta Imanol Ubeda musikaria, pailazo taldearen aldeko elastikoa jantzita.

Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*-ek hitz egin zuen taldekideen izenean, eta euren kontrako kanpainaren ondorioz iaz 20 emanaldi galdu zituztela gogorarazi eta gero, aurten pailazo taldea kontratatzeko asmoa zuen hainbat elkarte eta ikastetxe nola presionatzen dituzten salatu zuen: «Bidegabea eta onartezina iruditzen zaigu udal batek gure taldekideren baten pentsaera dela eta gu ez kontratatzeke jarrera hartzea. Era berean, kontratazio eskubidea aldarrikatu nahi dugu. Horregatik, gogor salatu behar dugu hainbat agintari politikoren jokatzea. Eurak gobernatzen duten herrietan guk jardutea ezin dutenez ekidin, gu kontratatu nahi gaituztenak presionatu eta mehatxatu egiten dituzte». Elkarrekin horiei xantaia ekonomiko egitea eta bestelako oztopoak jartzea salatu zuen, eta hainbat udal agintaririk prebarikazioa egiten dutela ohartu.

Horrekin guztiarekin euskal kulturaren esparruan azken 15 urteotan haurrei zuzendurik egiten ari diren lana hondoratu nahi izatea egotzi zuten eragile politikoei. Hala ere, gustura agertu ziren pailazo taldeko kideak aurten 150 emanalditik gora eskainiko dituztelako: «Honek garbi uzten du herritarrek jakin dutela bereizten hainbat politikaririk bereizi ez dutena: gauza bat da pertsona batek edo taldeak izan dezakeen ideologia eta beste bat pertsona edo talde horren lan profesionala».

Azkenik, «zentsura publikoaren» amaitzeko deia egin zuen Agirretxek, eta beren ego-



Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, emanaldi batean.

era berbera bizitzen ari diren taldeei elkartasuna eta babesa eskaini dietenei esker ona adierazi zuen agerraldiaren amaieran.

Azpiegiturak erabiltzea ukatu eta laguntzak kendu

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak pairatzen duen egoeraren ondoko adibideak eman zituen Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*-ek:

DONOSTIA: Udalak eta Bagera elkarteak elkarrekin kudeatu behar zuten aipatu elkartearen 10. urteurrena ospatzeko apirilaren 13an Antzoki Zaharrean eskaini behar zuten jaiak. «Ramon Etxezarreta Donostiako Kultura zinegotziak gure saioa zela jakin zuenean, bertan behera utzi zuen Bagera elkartearekin zuen akordioa».

Hala ere, saioarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten, baina Ramon Etxezarretak eta Donostiako kultura zuzendariak ondorioak ongi neurtu al zituzten egin omen zien oharra Bagerako kideei. «Ondorioz, Bagera elkarteak beldurtuta atzera

jo zuen. Hala, saioa guk antolatzea erabaki genuen. Eskaria egin eta aste batzuk igarota teknikari batek zera erantzun zigun: Ramon Etxezarretak esan ziola bezperan Orion atentatu izan zenez gero, gu ez ginela Donostian ariko. Harrigarria eta surrealista», uste du Joxe Mari Agirretxek.

BILBO: Hango alkate Iñaki Azkunak esan omen zuen Takolo, Pirritx eta Porrotxekin ezin dutela ez Bilbon ez beste inon emanaldirik eskaini. Horregatik ukatu zien joan den maiatzaren Gazte Topagunearen antolatzaileei Atxuri ikastetxea erabiltzea. «Hala ere, Bilbon zazpi bider izan gara azken ikasturtean».

EZKERRALDEAN: Sestao, Barakaldo, Santurtzi eta beste herri batzuetako udal herrietako antzokiak erabiltzea ukatu diete ikastetxei. Ikastetxeetan eskaini behar izan dituzte saioak.

IRUN: Irungo AEK-k ikasturte amaierako jaialdia egin behar zuen Amaia antzokian. «Baina

gure saioa zegoela jakiterakotan, Fernando San Martin kultur zinegotziak antzokiaren erabilera ukatu zion AEK-ri». Saioa maiatzaren 19an izan zen Hondarrabiko kiroldegian, eta mila lagun bildu zituzten —200 sartu ezinik gelditu ziren—.

ERRETERIA: 2001ean Langaitz ikastolaren 25. urteurrena zela eta Beraungo frontoian eskaini behar zuten saioa Ikastolan eskaini zuten azkenean, udalak frontoia erabiltzeko baimena atzera bota baitzuen.

ATARRABIA: Alkateak Lorenzo Goikoa ikastetzeko guraso elkarteari herriko frontoia, kiroldegia eta plazaren erabilera debekatu zion. Ondorioz, Paz de Zigandak hartu zuen pailazoen saioa.

GASTEIZ: Gasteizko euskal jaien eta auzoetako jaien antolatzaileak diru laguntzen murrizketak izan dituzte pailazo taldea kontratatzeagatik. «Gainera, PSOE-PPko agintariek 'terroristak' eta 'proetarrik' garelako esan dute publikoki».

PLATAFORMAREN MEZUA

Donostiako Udalari bilerarako deia egin diote berriz

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen aurkako boikota salatzeke euskal kulturaren munduko hainbat eragilek iaz sortu zuten plataformak bilerarako deia egin zion atzo enegarren aldiz Donostiako Udalari. Bilera horretan Udalak pailazo taldearekin hartu duen jarrera azaltzeko eskatu nahi diete udal agintariei. Atzoko agerraldian salatu zuten, ez Odon Elorza alkateak ez Ramon Etxezarreta kultura zinegotziak ez diete jaramonik egin bilera eskaerei. Plataformako bozeramaile Jokin Fachado aktoreak gogor kritikatu zuen udal agintari horiek beste foroetan elkarriketa bultzatzen ari diren bitartean eurekin biltzeari uko egitea. Eta gaineratu zuen: «Orduan, zein irtenbide ematen diguzue? Bakarra, mobilizazioa eta presioa, baina argi gera dadila zuek aukeratu duzuela». Plataformak Euskal Aktoreen Batasunaren, 20 antzerki talderen eta 50 aktoreen atxikimendua du.

JOXE MARI AGIRRETXE

Porrotx pailazo

«Euskal kulturaren barruan azken 15 urteotan haurrei zuzendurik egiten ari garen lana hondoratzen ari dira»

LASARTE-ORIA: «Gure parte-hartzeagatik AEK-k antolatzen duen Korrika Kulturala diru laguntzarik eta baimenik gabe gelditu zen». Sasoeta-Zumaburu ikastetxeari, berriz, 2001eko Aste Kulturaleko diru laguntza osoa ukatu zioten. Horrekin batera, pailazo taldea sortu zen Lasarte-Oriako Olentzero jaialdia «klandestino» izan dela adierazi zuen Agirretxek, «desfilerako udaltzain, argindar eta baimenik ez baikenuen».